

UDAN, ZE PLAN?

Uztaila da eta gogotsu nago hain beharrezko ditudan oporrak heltzeko. Abiadura handiko tren hau geldiarazi nahi dut, ikasturteko estresak utzitako ebakiak osatu, eta distantzia hartu nahi dut lanean zein etxebizitzarekin izan ditudan aldaketak eragindako ziurgabetasunetik.

Eta hasi da zalaparta: *udarako ze plan? Oporrak norekin egingo dituzu? Nora zoaz aurten?*, baita barneko burrunba ere: kilo batzuk hartu ditudala; esnea baino zuriago nagoela, iletsu; ez daukadala plan borobila lotuta eta ongi lotuta; nire lagun guztiak bikotearekin doazela; ez daukadala nahikoa sosik oporretara joateko; ez dudala udarako lanik topatu.... Uda hasi orduko nekatuago nago, hainbeste zarata artean.

Ez da agenda gobernatzeko arazo pertsonala, ordea. Sistemak ondo asko antolatzen ditu gure bizitza zikloak eta denborak. Ikasturtean zehar, gutxienez, zortzi ordu egokitzen dizkigu enplegurako –gehio ez badira-, zortzi lo egiteko eta zortzi aisialdirako, finean, “kontsumitzeko”. Teorian hori da egitura, nahiz eta zaintza lanetan, lan prekarioak tarteko, denboren proposamen hau ez den errealia, eta denboraren malabaristak garen emakume* asko eta asko. Eta udan aisialdirako denbora gehiago, baina aste pare bat edo, pasatu gabe! Energia pixka bat hartu, eta berriz jarraitzeko! Naturalizatu dugun arren, erlojuaren denbora lan merkatuaren arabera sortutako eraikuntza kulturala da. Produkzioaren denborak ez ditu beste tenpus batzuk kontuan hartzen, prozesuena, zaintzena, harreman sexu afektiboena, alegia, bizitzarena. Bizitza hori eremu pribatuan, ezkutuan, eusten eta goxatzen jarraitzen dugu, denbora ofizialetik at.

Kontsumora bideratutako turismoa, sutsuki desio dugun deskantsurako ilusio bilakatu da, gurpil zoroak biraka segi dezan, beste pieza bat. Klase sozialak markatuko du oporrik egingo dugun ala ez, fantasiatzko eta intentzioaz amestutako bidaia egingo ote dugun, edo “ihesaldi erromantikoa” egiteko aukerarik izango dugun. Mugarik gabeko opor festa hauetan pisu turistiko andana izango ditugu aukeran; tokiko jatetxe eta bisita preziatuak ezagutzeko *app* ezberdinak eskuragai; dena, bertako herritarren bizi eta lan baldintzak kontuan hartu gabe. Ondorioz, masifikatzen dira herri eta hiriak, xahutzen dira bazterrak, prekarizatzen dira herritarren bizitzak, eta kutsatzen da ingurugiroa.




Elite politiko eta ekonomikoen mesedetara dauden enpresek maneiatzen dute joko turistikoa. Emakumeok*, gazteok, migratuok... langileri ikusezina gara, opor iragarkietan ikusten ditugun klase altuko aurpegi txuri, alai, heteronormatibo horien atzealdean gaude. Hoteletako *kellyak* gara, edo kontraturik gabeko tabernariak, garbitzaileak, zerbitzariak, ume edo helduen zaintzaileak, esplotazio honen jopuntu nagusia, alegia.

“*Uda perfektu*” horrek emakumeon* gorputzen gaineko bortizkeria handia dakar. Emakumeoi* desiragarriak izateko mandatu horren eraginez, kanon zorrotzak ezartzen zaizkigu, bereziki udan. Bost axola zaizkie gure gorputzak eta bizitzak. Zenbat aldiz ikusi ote ditugu negozio turistikoek erabiltzen dituzten iragarkietan hamarnaka emakumeen* gorputz sexualizatuak? Zenbatetan bilakatu gaituzte sexu objektu? Zenbat dieta, UVA izpi, *operazio bikini*, depilazio laser eta udarako modelo *sexy* irentsarazi dizkigute? Zenbatetan sinestarazi digute gorputz bat eta bakarra onartu dezakegula? Patroi irreal eta dikotomiko hauek gure gorputzen aurkako biolentzia dira. Saldu, kontsumitu, jabetu, menderatu: hori da heteropatriarkatu kapitalistaren logika. Hortaz, baita turismoarena ere.

Orduan ze plan? Agian lagun artean, senide artean edo bakardadean erloju aputru eta aisialdia *bizialdiagatik* ordezkatuko dut; edo akaso, abiadura handia eten eta nire etxe edo herrian erlaxatzea lortuko dut, inora ihes egin behar izan gabe. Beharbada herritik kanpo joanez gero, beste begi batzuekin begiratuko diot inguruari, bertan bizi eta lan egiten dutenei. Nire presentziak duen eraginaz hausnartuko dut eta gutxitzen saiatu, nire azalean bizitakoa besteenengan ikusiz, gure kontraesanez kontziente eginda. Horrela, irailean, gure arteko binkuluak, denborak eta bizipenak josiz, zoriontasun produktuak kontsumitzera behartzen gaituen makinaria gelditzeko urrats bat gertuago egongo gara.

2019ko uztailean
EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA



¿EN VERANO, QUÉ PLAN?

Estamos en julio y siento una necesidad imperiosa de coger esas vacaciones que tanto necesito. Quiero parar este tren de alta velocidad, curarme las heridas que me ha dejado el estrés del año; necesito, tengo que coger distancia ante la inseguridad que me han generado el cambio de trabajo y el cambio de casa.

Y ha comenzado el bombardeo: ¿qué plan tienes para verano?, ¿con quién pasarás las vacaciones?, ¿a dónde vas este año?. Además, ese estruendo interior: he cogido unos kilos, estoy más blanca que la leche, peluda, no tengo un plan perfecto y bien atado, todas mis amistades se van con sus parejas, no tengo dinero para irme de vacaciones, no he encontrado trabajo para el verano... Empieza el verano y, entre tanto ruido, ya estoy más cansada.

Pero no se trata de mi problema personal para organizar la agenda. El sistema bien que sabe organizar nuestros ciclos vitales, nuestros tiempos. Durante el año, ocho horas -si no son más- para el trabajo productivo, ocho para dormir y otras ocho para consumir tiempo de ocio. En teoría esa es la estructura, pero entre los trabajos de cuidados y la precariedad este reparto de tiempos no es real, y muchas mujeres* somos malabaristas del tiempo. En verano, un poco más de tiempo para el ocio pero sin pasarse: más o menos, y si no tienes mucha carga de trabajo de cuidados o mientras tengas los recursos necesarios, un par de semanas para acumular un poco de energía que te permita volver a empezar a currar. Aunque lo hayamos naturalizado, el tiempo del reloj es una construcción cultural creada en función del mercado de trabajo. El tiempo productivo no tiene en cuenta otros "tempus" como el de los procesos, los cuidados, las relaciones sexo-afectivas, es decir, el tiempo de la vida. Seguimos manteniendo y gozando esa vida en el ámbito privado, a escondidas, fuera del tiempo oficial.

El turismo dirigido al consumo se ha convertido en la ilusión del tan anhelado descanso, en otra pieza para mantener girando esa loca rueda. La clase social determinará el tamaño de nuestras fantasías viajeras, el ansia de aventura o las posibilidades de "escapadas románticas". Tendremos al alcance un montón de pisos turísticos y también unas *app* para conocer los preciados restaurantes y visitas típicas del lugar. Todo, sin necesidad de tener en cuenta las condiciones de vida y trabajo de



su población, masificando pueblos y ciudades, despilfarrando, precarizando, contaminando el entorno, ¡en una fiesta vacacional sin límites!

Son las empresas al servicio de las élites políticas y económicas quienes manejan el juego turístico. Las mujeres*, las personas jóvenes, las migrantes... somos clase trabajadora invisible, estamos detrás de esas caras blancas, alegres y heteronormativas de clase alta que vemos en los anuncios de vacaciones. Somos las *kellys* de los hoteles o las camareras, limpiadoras, cuidadoras de personas menores y mayores, sin contrato. Somos, en definitiva, el principal objetivo de esa explotación.

Ese "verano perfecto" implica una gran violencia contra las mujeres*. Se nos encomienda ser deseables y para ello se nos imponen, también en verano, cánones de belleza estrictos que afectan gravemente a nuestra autoestima. No importa si para aumentar los beneficios hay que poner en venta y de rebajas nuestros cuerpos. ¿Cuántas veces hemos visto los cuerpos sexualizados de las mujeres* en la publicidad que utilizan los negocios turísticos?, ¿cuántas veces nos han convertido en objeto sexual?, ¿cuántas dietas, rayos UVA, operaciones bikini, depilaciones láser y modelitos sexys nos han hecho tragar?, ¿cuántas veces nos han hecho creer que podemos aceptar un sólo y único modelo de cuerpo? Esos patrones irreales y dicotómicos son violencia contra nuestros cuerpos. Vender, consumir, adueñarse, someter: esa es la lógica del heteropatriarcado capitalista. Y esa es, por tanto, la lógica del turismo.

Entonces, ¿qué plan? Probablemente, entre personas amigas, entre familiares o en soledad, romperé el reloj y sustituiré el tiempo de ocio por tiempo de vida; quizá conseguiré detener esa alta velocidad y relajarme en casa, en mi pueblo, sin tener que huir a ninguna parte. Y, tal vez, si me voy por ahí, miraré con otros ojos el entorno, miraré con otros ojos a las personas que viven y trabajan en él. Reflexionaré sobre el impacto de mi presencia e intentaré minimizarlo, viendo en esas personas lo que yo he vivido, consciente de mis contradicciones. Quizá tejiendo nuestros vínculos, tiempos y vivencias, en septiembre estaremos un poco más cerca de detener la maquinaria que nos obliga a consumir productos para la felicidad.

En julio de 2019

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA